

# **PUBLICACIONES**



## Zuazo, Koldo

*Deba Ibarreko Euskara. Dialektologia eta Tokiko batua*

Badihardugu euskara taldea

ISBN: 84-611-3813-9

Dialektologiaren ibilbidean, Koldo Zuazo ikertzaile nekaezinaren bertze lan bat dugu eskuartean. Deba ibarreko euskara azterzeaz gain, dialektologia eta soziolinguistikako gaurko hainbat gai jorratzen ditu, liburuak dituen lau kapituluetan: *Deba ibarra, Deba ibarreko euskararen ezaugarriak, Dialektologia eta Soziolinguistika*.

Hitzaurrean egileak azaltzen digu zeintzuk izan diren liburu hau egitera bultzatu duten arrazoiak. Urte batzuk aurrerago *Deba ibarreko euskeria* liburua burutu zuen, eta hura osatzeko eta, aldi berean, ikuspuntua borobiltzeko asmoz apailatu du honako hau. Egileak dioenez, eskolan eta ikastetxeetan euskalkiak irakasten dihardutenentzat egin du lan hau; euskalkiak non eta noiz erabili behar diren zehaztuz eta Euskal Herriko alde desberdinetako egoera aipatuz. Kontuan hartzen du egileak hizkuntzak duen zeregin ludiko eta afektiboa, eta erbestetik etorritakoak herri euskaldunetan bertakotzeko hizkerek joka dezaketen papera ere bai. Hortaz, ikuspegi sinkronikoa eta etorkizunari begiratzen diona da nagusi lan guztian zehar.

Ondoren, Deba ibarra deskribatzen du, geografia eta ekonomia, biztanlegoa eta euskaldun kopurua, eta berorretan idatzi duten horietaz arduratzen da, esaterako, Larramendi jesuita, J. Antonio Uriarte fraide frantziskotarra etab.

Deba ibarreko euskara kapituluari, herriz herriko euskararen egoera aztertzen du. Sailkapena egin baino lehen, hizkuntzak izaki biziak bezala tratatzen ditu. Beraz, ikuspegi dinamiko hori azpimarratzen du, behinolako eta gaurko datuak elkartuz, eta egungo ezaugarriak, hain zuzen ere, euskalkiak nolakotzen ari direnak lehenesten. Alegia, ikuspegi humanistiko hori sinkronikoa da bereziki, eta hizkeren giza geografia horrek ikuspegi hori osotzen laguntzen du. Esaterako, egun ikasle mutrikuarrek Ondarroara edo Markinara badoaz ikastera, hizkera hori kutsatuko dute eta horren ondorioz, poliki-poliki Mutrikuko hizkera bizkaieren kolorea hartzen joanen da.

Deba ibarreko ezaugarriak aipatzean, ongi definitzen du zer den 'arau' hitza, bitxikerietatik bereiztuz eta argi utziz *arau emankorra* zer den, baita *arau ibartua* eta *arau gara-*

*tu gabea* ere. Ikuspegi didaktikoa dario liburuari, irakurlea ez baitu aspertu nahi hitz zerrenda amaigabeekin. Ondoren bokalekin gertatzen diren fenomenoak zehazten ditu, banaka-banaka (zazpi fenomeno, baita garatu gabeko arauak ere). Horietan *urun*, *ultza*, *ule* eta antzekoak ezagunak izan direnak, garatu gabekotzat jotzen ditu. Hori dela eta, arau honek berrikuntza suposatzen du orain arteko dialektologia lanean, etekina duten ala ez jakitea suposatzen baitu. Era berean, kontsonanteen sailean gaur egungo anglizismoek (*marketiña*, *futiña* edo *rafiña*), zein arau betetzen duten ikustea garrantzitsutzat jotzen du.

Azentu sailean kapitulu bat gartzten du hitz bikoteak emanez. Eta azentuaren ondorioz kontrakzioak sortzen diren ala ez ikusiz. Atal honi ere ikuspegi didaktikoa, eta dibulgatzailea dario, adibide ugariekin hornitua da atal guztietan izenaren morfologian eta baita aditzarenean ere. Aditzean, esaterako, 28 ezaugarri aztertzen ditu, adizkiena, aditz nagusia eta abarren erabilera zehaztuz. Bertzaldetik, sinkroniari berebiziko garrantzia eman dio, bere lana gaurko helduen eta gazteen hizkeran oinarritua egon behar duela dio, ez, bakarrik adin handikoen hizkeran; "dialektologia eta ez arkeologia" egitea duela gogoko dio 102. orrialdean.

Dialektologia kapitulan kontu teorikoez dihardu, arkaismo eta berrikuntzei eman beharreko garrantzia azpimarratuz. Eta hain zuzen ere, aldakuntza non gertatu den eta aldakuntzaren oihartzuna nora hedatu den aztertzearen aldekoa da. Hori dela eta bere aztergaiak izanen dira: *etxetikan*, *ikustiagaitikan* bezalako aldaerak eta alde batean utziko ditu *etxetil* *etxetik*, *ikustiatil* *ikustiatik* eta *zara* / *zarie* pareak.

Lan hau etorkizunari begira egirik dago, irakaskuntzan aritzen direnei zuzendua, hein handi batean, ez filologo edo berezilariei, eta hori dela eta, ikuspegi sinkronikoa nagusitzen da beronetan. Honenbertzez, logikoa da arkaismoetan ez jartzea pisu guztia, ezagutza aldetik, errealtatearen zatiak dira, ezinbertzez, baina, helburua zein den ere kontuan hartu behar da. Desberdina da itzaltako hizkeretan, Artzibarko eta Eguesibarko euskararen kasuan bezala, kasu horietan diakroniak beharko luke lehentasuna izan. Zeinek egon ziren lotuago ikusi behar da, eta horietan hizkuntzalaritza diakronikoak badu zeresan handia.

Bertzaldetik, gaur egungo hizkerak hauek bizitasun handikoak dira, azken batean, esparru hauek hiriko dialektologian sortzen diren joerekin dute antzekotasun gehiago. Hori dela eta ezaugarri hauetako batzuk nagusitzen dira: dialektoen nahasketa, berdinketa, hiriguneen eragina etabar.

Azken batean dialektologiariak dinamikotasun batean mugitu behar du, atzera eta aurrera joanez; alde batetik emankorrek ez diren ezaugarriak eta aurrera doazen berrikuntzak biak kontuan hartuz. Eta horrek zailtzen du dudarik gabe hizkeren banaketa, ezaugarrien ponderazio hori egitea ez baita oso eroso suertatzen.

Plazaratzen duen hurrengo arazoa hau da: ezaugarri kopuruarena. Zenbat ezaugarri hartu behar dira hizkerak sailkatzeko? Bonapartek eta Yrizarrek ezaugarri gutxiegi hartu zituztela dio. Konformeago ageri da Zuazo Mitxelenak erabilitako prozedurarekin, ezaugarri gehiago hartzearekin eta gisa guztietakoak, morfo-sintaktikoak zein fonologikoak.

Zuazoren arabera, isoglosen hierarkia eta gertakarien kronologia go-

goan hartzekoak dira, baina kezka handiago sortzen dio etorkizunak, horregatik galdera bat nagusitzen da lan guztian zehar: ea gaurko belau-naldiko gazteek hori horrela darabilten ala ez. Hori dela eta, bertze hizkera batzuen egoerarekin parekatzen du; Nafarroako Larraungoan, esaterako, bi geruza ikusten ditu: bata ekialdeko joera nagusiengan nabarmentzen dena, eta bertzea, gazteena gipuzkeraren joeraren menpekoago dagoena. Alderantziz gertatzen da Nafarroa Iparraldean, hor nafarra da geruza berria eta Ipar Euskal Herrikoa, zaharra.

Lexikoak ere badu bere tokia, honetan arau emankorrek hartzeko garrantzia azpimarratzen du. Era berean, aldaera lexikoak *irten/ uren/ erten* eta lerro lexikal desberdinak (*irten/ ateral/ jalgi*) bereiztearen alde agertzen da.

Ondoren, euskalkien mapa berria aurkeztean, berauen izen berriez zertxobait argitzen digu; bertan izenen aldaketa proposatu zituen eta izendapen horien arrazoa ematen ditu. Horrela, euskalkiak edo hizkerak izendatzeko modu egokiez arduratzen da eta aldi berean izen traketak saihesteko beharraz ohartzen gaitu.

Deba ibarreko hizkeren kokaguneaz mintzo zaigu hurrengoan. Deba berrikuntza sorgune esanguratsua bezala, eta batasunik gabeko tokia. Deba ibarrean ez da batasunik izan eta mendebaleko eta gainerako euskalkien arteko etena ez dela erabatekoa izan berresten du, eta honetan, dudarik gabe, orografiak eta ekonomiak zerikusia izan dute.

Deba ibarreko alderdi batzuetako berrikuntzak eta hauen ezaugarrien zerrenda ekartzeaz gain, aldaerak eta garatu gabeko arauak ematen ditu banan bana. Izan ere, bereizgarri gehienak ez dira Deba ibar oso-

koak, handik kanpo ere bai baitira ezaugarriak: mendebaleko berrikuntzak gertatu dira Deba ibarrean, eta hori dela eta, mendebal eta gainerako euskalkien arteko etena ez dela inondik inora erabatekoa izan dio.

Bertzaldetik, Euskal Herriko erdialdeko ezaugarriek (Gipuzkoakoek) eragina izan dute Deban. Elizako predikuetan aipatzen denez, eta elizgizonak ez ezik gizarteko handi jendeak, zioenez. Bereziki Elgoibarren, Mutrikun eta Deban, azken herri horretan erdialdeko euskalkia ezar daitekeelarik bete-betean: (*i + a, e, o*)-ren arteko *x* epentesia (*mendixa*) izan ezik.

Debagoienak, ordea, Eibarrekin eta Ermuarekin izan du bizkaieraren eragin gehien. Arabako lautadatik jasan du gehiena. Debagoienak Gasteizekin eduki baitu hartu-emanik estuena eta uste izatekoa denez, hango ezaugarriak eta berrikuntzak iritsi dira bertara. Elizaz ere Arabarekin egon da loturik Deba ibarra, eta gaur egun ere horrela dihardu; Gasteiz baita Debagoieneko lagunendako salerosketarako eta astialdirako jomuga.

Ondoren, Oñatiko hizkeraren nortasuna aztertzen du beste kapitulu- luan. Herri horrek Arrasateri begira egin du bizimodua, batez ere XX. mendean herri honetan industria suspertzen hasi zenetik. Dena dela, bakardadea ez da sekula erabatekoa izan eta mota guztietako eraginak, berrikuntzak eta abar jasan ditu, horiek denak aztertuz.

Soziolinguistika atala, laugarrena, benetan interesgarri suertatzen da. Orrialde hauetan aztertzen du Zuazok zeintzuk izan diren euskara batua sortzeko iraganeko bideak, gipuzkera osotua, lapurtera klasikoa, bizkaiera; hauetatik bakoitzak zein eragin izan duen, eta azkenean eus-

kararen batasunera nola heldu garen, dena modu argi eta didaktikoa erabiliz. Ondoren bertan planteiatzen da zein datekeen hizkeren geroa.

Euskara batua malguagoa eta zabalagoa izatearen aldekoa agertzen da Zuazo eta, horretarako, tokian tokiko euskara lantzea proposatzen du; etorkizunari begiratzen dio eta bide horretan, herri hizkerak non eta noiz erabili behar diren zehazten du. Aldioro ezaugarri bizien alde agertzen da, txokokeriak eta aldaera zaharkituak baztertzea proposatuz. Azkenik, ortografian, fonologian eta morfologian zein arau eman diren euskara baturako zehazten ditu, banan bana, zeintzuk izan ziren egoiak Debarako zehaztuz. Horretarako, atal bakoitzean Deba ibarrean zein ezaugarri morfologiko edo fonologiko diren berezkoak zerrendatzen ditu.

Lexikoaren atalean Deba ibarrak euskal lexikoari ekar diezaiokeena aztertzen du. Azken hitzek laburbiltzen dute zer den euskara batua, arkaismoei muga jartzea da horietako asmo bat; era berean euskaldunak elkar uler dezagun hainbat maileguri muga jartzea proposatzen du. Zua-

zoren ustez, iparraldean edo Estatu Batuko euskarari ulertuko ez luketen hitzak mugatu beharko liriateke, oso hedatuak badaude ere: *apropos, auskalo, bistadizo* eta abar.

Liburu honetan lan ederra plazaratu du Zuazok, tokiko azterketa egiteaz gain, aurreko beste lan batzuetako asmoak, hausnarketak kritikak eta proposamenak bildu ditu honetan. Badirudi argitu beharreko gauza batzuek kezkatzen zutela eta hau izan dela horretarako hautatutako bidea. Euskara batua zaintzeak eta sendotzeak ez du esan nahi herri hizkeren aurka egon behar denik. Hori dela eta, batuaren onurak go-raipatzen ditu, ezbairik gabe, baina, aldi berean, "tokiko batua" proposatzen du Zuazok, herri euskaldunetan bizilagunak hobeki ulertu eta komunikatu ahal izateko, eta hori guztia erantzun zehatzak emanez. Ez da planteamendu teoriko hutsaletan gelditu; proposamen orekatua, zentzuzkoa, arrazoitua eta didaktikoa ekarri du liburu honetara.

Orreaga Ibarra  
*Euskal Filologia Saila*  
NUP

### Gómez López, Ricardo

*XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*

Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2007, 405 or.

**I**nportantetzat daukat Ricardo Gomez irakasleak argitaratu berri duen liburua. Izenburuari begiratu-ta, aztergaia XIX. mendeko euskal gramatikagintza dela ikusten da, baina hori baino zerbait gehiago ere bada-go.

Izan ere, bete-betean XIX. men-deko gramatikalarien lana erakutsi eta aztertu aurretik, haien aitzinda-riak aurkezten dizkigu. Hasteko, Voltaire, *L'Interpret ou Traduction du françois, espagnol & basque* ikas-bidearen egilea eta euskal gramati-kagintzaren aitzindaritzat jo daite-keena. 1620 aldera agertu zen liburu hori eta hainbat bider berrargitaratu zen ondorengo urteetan. Benetako gramatikalaritzat har dai-tekeen lehena, dena dela, Oihenart izan zen, 1638an *Notitia utriusque Vasconiae* historia liburuan euskara-ren gainean egin zituen oharrengati-k. Gomezek nabarmentzen due-nez, gainera, ohar horien artean badira hainbat iritzi interesgarri, as-kozaz geroago arte ezagutu eta onar-tu ez zirenak. Hain zuzen, XIX. men-dean, Astarloari eta Humboldti esker, batik bat, zabaldu ziren Oihenartek mendeko bi lehenago

egindako proposamenetako zen-bait.

Baina Gomezek bere liburuaren sarreran gogora ekartzen digunez, beste gramatika batzuk ere izan ziren XVII-XVIII. mendeetan: Pouvreaurena, Mikoletarena, Sarako Etxeberri-rena, Urterena, nahiz eta horiek guz-tiok XIX. mendeko amaieran edo XX.enean argitaratu ziren. Galdutzat dauzkagunak ere badira: Belarena, Bidegarairena, Melchor Oihangure-rena... Beraz, egindako garaian argitaratutako bakarrak Larramendirena (1729) eta Harrieta (1741) dira eta, horiekin batera, Agustin Kardaberatzek, Larramendiren gramatikan oinarrituta, *Eusqueraren berri onak* (1761) saioan egindako oharra.

Gertakari horien guztion berri ze-hatza ematen digu Ricardo Gomezek liburuaren atarikoan eta, horrenbeste-an, Beñat Oihartzabalek 1989an ASJU aldizkarian argitaratutako “Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)” saio ederra osat-zeraz dator.

Sarrera aberats horren ondoren, XIX. mendeko euskal gramatikagin-tzaren gaiari heltzen dio eta zati na-gusi bitan banatzen du. Batean, gra-matikalaririk esanguratsuenak eta

euren lanak aurkezten dizkigu eta bestean, berriz, gramatika auzi jakin zenbaitek egilez egile eta historian barrena egin duten bilakaera erakusten digu.

Hauexek dira aztergai dituen gramatikalariai: Pedro Pablo Astarloa, Humboldt, Darrigol, Bonaparte –eta harekin eztabaidan jardun zuten Luchaire, Vinson eta Van Eys– eta Van Eys bera.

Bigarren zatian, hau da, euskal gramatikagintzan zeresan handiena eman duten gaien artean, artikulua, aditz bakarraren teoria eta objektu komunztadura aztertzen ditu.

Gramatikariaren artean, hiru jartzten ditu gainerako guztien aurrean: Pedro Pablo Astarloa, Humboldt eta Darrigol. Astarloa izan zen Europako joerak Euskal Herrira ekartzen lehena. XVIII. mendean, gehienbat Frantzian, gramatika orokor eta filosofikoa landu ziren eta haiengandik hartu omen zituen Astarloak hizkuntzaren jatorriaz zeuzkan iritzieta-ko asko. Baina horretaz gainera, euskararen deskripzio zuzen eta zehatz samarra egin zuela ere nabarmentzen du Gomezek. Euskararen deskripzio horretan, hain zuzen, hitzen morfemak bereizi eta zehaztu zituen eta, gehienetan, zuzen asmatu zuen. Aitzindari izan zen Astarloa horretan. Esan dezadan, honen guztionen harira, berritzailea eta interesgarria iruditzen zaidala Gomezek Astarloaren gainean erakusten duen ikuspegi, eta Astarloa eskubide osoz dago-kion lekuan ezartzen duela.

Ipar Euskal Herriko euskalariak ere, jakina, eragin handia izan zuten euskal gramatikagintza abian jartzeko orduan. Gertutik jarraitzen zuten Frantzian barrena esaten eta egiten zena eta euren bidez heldu ziren hango albisteak Hegoaldera: Darrigol, Abbadie, Xaho, Intxauspe, Duvoisin eta Ithurri aipatzen ditu Go-

mezek, eta baita euskara aztertzen jardun zuten gramatikari frantziarrak ere: Lécuse, Bonaparte, Luchaire eta Vinson. Baina horien guztien artean, Darrigoli ematen dio lehentasun eta nagusitasun osoa.

Deklinabidea aurkezterakoan, gehienbat, erabateko etena egin zuen ordura arteko bidean. Latinarren eruditik aldendu eta euskararen beraren egitura kontuan hartuta egin zuen euskal deklinabidearen azalpena. Dena dela, Beauzée izan zuela aitzindari esaten du Gomezek, hura ohartu zelako mundu zabaleko hizkuntza guztien egitura ez zela latinaren berbera. Kontuak kontu, Darrigolen deklinabidea eta haren aurrekoek –Oihenart, Mikoleta, Urte, Larramendi– aurkeztu zutena alderatuta, sei kasutik hamarrera aldatzen dela ohartzeko gara eta, gainera, hiru paradigma agertzen dira Darrigolen aurkezpenean: mugagabea, singularra eta plurala.

Deklinabidearen izana ez ezik, izenak ere aldatu zituen Darrigolek. Bere horretan onartu zituen latineko nominatiboa, datiboa, ablatiboa eta genitiboa, baina, aldiz, baztertu egin zituen akusatiboa eta bokatiboa eta, euren ordean, beste sei hauek ekarri zituen: aktiboa –edo oraingo ergatiboa–, bitartekoa –instrumentala–, lekuzkoa –inesiboa–, soziatiboa, destinatiboa eta hurbilkaria –adlatiboa–.

Astarloa eta Darrigol bikotearekin batera, Humboldt ere nabarmentzen du Gomezek, eta arrazoi bigatik gehienbat. Batetik, Europako metodo eta ikuspegiak Euskal Herrira ekarri eta euskara aztertze-ko baliatu zituelako eta, bestetik, Europan barrena eman zuelako euskararen berri. Dena dela, berak ere izan zituen euskararen gramatikaren gaineko iritzi bereziak, gehientsuenetan Astarloari jarraitu bazion ere.



Liburuaren bigarren zatian euskal gramatikagintzan gehien landu diren gaiak jorratzen dituela esan dugu. Artikulua da horietako bat.

Oihenart izan zen *a* eta *ak* “artikuluak” zirela esaten lehena, artean eta geroago ere hitzaren bukaeratzat hartzen zirelako. Hain zuzen, Oihenarten ondoren ere horretan egon ziren Pouvreau, Urte, Etxeberri Sarakoa eta Harriet. Larramendiri esker zabaldu zen, hurrengo mendean, *a* artikulua zen ustea. Horrekin lotuta, bestalde, Oihenart izan zen, era berean, euskarak deklinabide mugagabea zeukala esaten lehena, baina hori ere oharkabean pasatu zen, harik eta XIX. mendean Astarloa eta Humboldt heldu ziren arte.

Aditz bakarraren teoria da euskal gramatikagintzaren beste eztabaida iturrietako bat eta berriro ere Oihenarten izena aipatu beharra dago, bera izan zelako aditz trinkoen jatorrasuna aldarrikatzen lehena. Larramendik, esate baterako, irregulartzat eta berriztat jo zituen mende bete geroago, eta perifrastikoak, berriz, arauzkotzat eta zahartzat. Humboldti esker jarri ziren gauzak bere lekuan eta, jakina, aditz trinkoen antzintasuna eta jatortasuna onartu zen.

Gomezek gogora ekartzen duenez, Humboldt bera izan zen, hain zuzen, aditz bakarraren teoria aipatzen aurrena. Zehatzago esateko, aditz laguntzaile bakarra zegoela esan zuen, baina geroago atzera egin zuen. Astarloak ere ez zuen aditz bakarraren teoria onartu, baina bai Darrigolek, eta harekin egin zuten bat ondorengo gramatikalariei zenbaitetik, Iparraldekoek batez ere: Abbadiek, Xahok, Intxauspek, Bonapartek, Arana Goirik eta Azkuek. Jakina, *izan* zen aditz bakar hori.

Objektu komunztadurarena da euskal gramatikagintzako beste ko-

rapiloetako bat. Jakina denez, nominalibo komunztadura baizik ez zegoen latinean eta horren eragina nabari da XIX. mendea arteko euskal gramatikagintzan. Astarloak egin zuen etena. Aditzeko morfemak bereizi eta zehaztu eta, argumentu motaren arabera, beste komunztadura batzuk ere bazirela ikusi zuen. Geroago, XIX. mendearen erdialdera, beste batzuk zabaldu zuten hark urratutako bidea: Bonapartek, Vinsonek eta Van Eysek, gehienbat.

Horixe da, hitz bitan esateko, aztergai dugun liburuaren edukia, baina liburuaren beste alderdi batzuen gainean ere egin nahi ditut zenbait gogoeta.

Alde batetik, gai jakin bat zabal eta sakon liburu bakarrean aurkeztu izana da ikusten diodan onuretako bat. Irakurle arruntarendako ez ezik, ikertzaile saiatuarendako ere eroso da gauzak liburu bakarrean aurkitzea, eta ez han-hemen sakabanatutako artikuluetan. Badaukagu euskalaritzan tankera horretako lanen beharra. Egiari zor, batzuk baditugu, dagoeneko, eskura: Jabier Alberdik euskararen tratamentuen gainean egindakoa, Jose Ignazio Hualdek azentuaz moldatutakoa, Hualdek berak eta Jon Ortiz Urbinak gramatikako zenbait gai bilduaz osatutako *A Grammar of Basque ederra...*, baina beste arlo batzuetan ere bide hori ibili beharra dago eta hor sartzen da, jakina, mintzagai dugun liburua.

Gomezek, gainera, hizkera argia darabil –argia eta, aldi berean, landua– eta argiak eta gardenak dira bere azalpenak, eta horixe da liburuaren beste onuretako bat: hizkuntza gaiak gogoko dituen edonork erraz eta eroso irakur eta uler dezakeela.

Ricardo Gomezek euskal gramatikagintza Europako eta mundu zabaleko gramatikagintzaren barruan kokatzeko egin duen ahalegina ere

nabarmendu beharrekoa iruditzen zait. Euskal gramatikararien iturriak zein diren argitzen ahalegindu da eta, hori dela eta, euskalaritzan dihardutenendako ez ezik, gramatikagintzan dihardutenendako ere badauka liburuak interesa. Hasieran ere esan dut XIX. mendeko euskal gramatikagintza baino gehiago dela liburu honetan aurki daitekeena.

Liburua euskaraz egin izana ere eskertu egin behar zaio Gomez irakasleari. Bide hori ibiltzea ezinbeste-

koa da bai euskara bera eta bai ikasleak eta ikertzaileak ere trebatuko badira. Baina behin euskaraz argitaratu ondoren, erdarara egokitzea ere ezinbestekoa da, erbestean ere jakin dezaten euskara eta euskalaritza zertan diren. Horixe da Ricardo Gomezek egin diezagukeen hurrengo oparia, baina bien bitartean goza dezagun orain ekarri diguna.

Koldo Zuazo  
*Euskal Herriko Unibertsitatea*